

GAZTEA

Deskribapena: Kike, Gaztea irratiko estudioan ageri da Joseina Etxeberria, Edurne Garmendia eta Ainhoa Vitoriakin elkarrizketan.

Kike: “Aizue kuadrila ezer baino lehen zorionak!”

Edurne: “Bai, eskerrik asko!”

Kike: “Eta elkarrizketa hau titular batekin hasiko dut gainera: Gazteak erdal irrati formulen aurretik jartzea lortu du.”

Edurne: “Bai, hori titular polita da baina azpitiular asko daude hor, e? Dela, formulen artean lehenengoa, baino da irrati guztiak kontutan hartuta hirugarrenak gara. Aurrenengoa Ser, gero Radio Euskadi eta gu, hirugarrena. Ehun eta hogeita hamabost mila entzule ditugu egunero. Ez dakit jendea hortaz ohartzen dan...”

Kike: “Ez da txantxetako kontua ez? Eta talai honetatik non ikusten duzue euskal musika indartsuen, ze estilotan edo?”

Edurne: “Rock-a izan da beti euskal musikaren ez dakit, ez?”

Ainhoa Vitoria: “Bueno eta Ska bebai, e. Ska...”

Joseina: “Mainstream deitzen den hori Euskal Herrian beti desberdina izan da. European edota nazioartean beti Pop musika komertzial hori izan baldin bada hemen aldiz, gehiago egon gara ba Rock-etik edo Metal-etik edo Ska edo Rock estiloetatik, ezta? Baina bueno, hor ere ari gara ahalegin batzuk egiten, batzutan gainera euskeraz, beste batzutan talde euskalduna izan arren ba ingelesa erabiliz edo beste hizkuntza batzuk erabiliz, ezta? Bai, bueno, hor pixkatxo bat denetarik dago baina nik uste dut Rock hitz zabaltasun horretan daukagula gure fuerterik haundiena.”

Kike: “Eta euskaldun musika non dago zuen Top-ean?”

Joseina: “Bueno, gu saiatzen gara euskal musikari tarte haundi bat egiten, bai, ehuneko hogeitahogeita piku bat. Bueno inoiz ez gara izan hola kuota edo zenbaki hoi oso aldekoak eta hola, beti egin dugu tarte berezi bat, diskriminazio positibo bat euskal musikari, ezta? Ze azken batean hemen euskeraz irratia egiten dugu baina baita ere gaude hemengo taldeei irtenbide bat emateko. Ziurrenik ez batzuk nahiko luketen adina edo ziurrenik baita ere beste batzuek nahiko luketena baino gehiago, ezta?”

Edurne: “Bai, orekan dago sekretua, ezta?”

Joseina: “Bai, oreka horretan dago kontua, ezta?”

Kike: “Aizue, eta azken urteotan somatu duzue euskalkienganako joerarik euskal taldeen artean?”

Ainhoa: “Bai, badaudez batzuk bizkaieraz gure dabierna mantendu, ez? Gatibu taldea adibidez dana bizkaieraz, edo Uski´s taldea bebai horretxek be beti bizkaieraz eta bueno behintzat indar hori, ez?”